

-HIKA ANTZERKI TALDEA-

- "HAU KOMERIA!" -

(Komedia musikala)



KONTRATAZIOA:

P.K. 46
20.170 USURBIL

Tlfo: 943-47.26.88
(Belen Cruz)

-KURRIKULUMA-

Izena: HIKA ANTZERKI TALDEA s.l.
Abizena: ANTZERKIA Jaiotza data:
1989an. DONOSTIAN Helbidea: **(20.170)**
USURBIL

-GIPUZKOA-

Telefonia: **943-47.26.88**

-EGINDAKO LANAK-

- 1989- "**ETA OHEA EGIN GABE**" (Kale antzerkia)
Egilea: *HIKA eta Jorge Amich.*
Zuzendaritza: *Jorge Amich.*

- 1990- "**CHAPLIN TROPELA**" (Aretokoa)
Egilea: *HIKA eta Jorge Amich*
Musika: *Joxan Goikoetxea*
Zuzendaritza: *Jorge Amich*

- 1991- "**AGURO!**" (Aretoko haur antzerkia)
Egilea: *Agurtzane Intxaurraga, Garbi Losada*
Zuzendaritza: *Garbi Losada*

- 1992- "**CHARLOTADAK**" (Kale antzerkia)
Egilea: *Hika*
Zuzendaritza: *HIKA*

- 1993- "**BABALIBU! BABALIBA!**" (Haur kale antzerkia)
Egilea: *Agurtzane Intxaurraga*
Zuzendaritza: *Belen Cruz, Agurtzane Intxaurraga*

- 1993- "**ONGI ETORRI ETSAI HORI**" (Kale antzerkia)
Egilea: *HIKA, Agurtzane Intxaurraga*
Zuzendaritza: *Agurtzane Intxaurraga*

- 1995- "**EASOKO EDERRAK**" (Aretoko komedia musikala)
Egilea: *Agurtzane Intxaurraga*
Musika: *Beltz espiritualak, Musika Alemana, Zarzuela,...*

Antzezleak: *Orfeoiko Kanto eskolako kideak*
Zuzendaritza: *Agurtzane Intxaurraga*

- "**HENRY BENGUA INVENTARIUM**" (Aretokoa)
Egilea: *BERNARDO ATXAGA*
Musika: *Joxan Goikoetxea, Joseba Tapia*
Zuzendaritza: *Jorge Amich, Macarena Pombo*

**Hau komeria....Komediak, abestiak,
antzerkiak gaur.**

Hau komeria....Nahaspila lau, hamalau.

Hau komedia....Zer da hau?

**Hau Komeria ! : umorea, kantu eta komeria askoz
osatutako antzerki-entsalada ederra.**

**Amon, aiton, lagun, maitale, gazte gizon eta emakume
guztiei zuzendutako melodia handiko amets eta
esamesak.**

**Kontu-kontari, dantza-kantari aritzen dira Patxi,
loli, Dori, Emili eta Bittori.**

**Lehenengoak, afaltzeko gogoak;
Bigarrenak, emakumeak txalotzeko asmoak;
Hirugarrenak, desamorio kontuak;
laugarrenak, maitasun desioak;
Azkenak, piano baten soinuak.**

"Hau komeria"

Gaur GURE herrian iluntzeko garaian kantu saioan:

Egilea: Agurtzane Intxaurreaga

Pianujolea: Mari Jose Bergara

Interpreteak:

Josu López Soraluze Miren Gojenola

Mikel Laskurain

Ainhoa Aierbe

Agurtzane Intxaurreaga

Argazkiak: kaixo

Diseinu Grafikoa: Joseba Aierbe

Jantzien diseinu-errealizazioa: Josu López Soraluze

Argi diseinua: Jabi Molina

Hizkuntz arduraduna: Ritxi Lizartza

Zuzendari laguntzailea: Belen Cruz

Musika konponketak: Mari José Bergara

Zuzendaritza: Agurtzane Intxaurreaga

Produkzioa eta salmentak: Belen Cruz

Hau komeria **"komedia musikala"** dela esan dezakegu. 1995garren urtean HIKAK **"Easoko Ederrak"** ekoiztu zuen "Donostiako Orfeoiko Kanto eskolako kideekin". Antzezlan harek edukitako harrera ikusi genuenean, eta lan merkatuan era horretako lanen urritasuna kontutan hartuta bide, bera jorratzea erabaki dugu.

JOLAS EGITEKO antzerkia bezala defini daiteke. Aktore eta ikusleen arteko ordu ta laurdeneko antzerki jolasa.

HIKAK bere lehenengo urratsetan **"Eta ohea egin gabe"** antzezlanean ikasi eta erabilitako antzerki oinarri berdintsuak agertzen ditugu "Hau komerian": **Jendearekin hartu emana, pertsonai herrikoiak, eta eguneroko egoerak**, beti ere **ikuspuntu kritiko** bat azalduz.

Publiko guztiari zuzendu nahi izan diogu gure komeria. kantuak pisu handia hartzen du gure lanean. kantu klasikoa eta musika arina biltzen ditugu. **Operatik saltsara** goaz, **zarzuelatik musika arinera**. Hala ere, **ANTZERKIA** egitea izan da gure **helburu nagusia**, istorio ezberdinak era berezi batean kontatuz.

Zure herriko **antzokira**, zure herriko **areto nagusira**, zure herriko **euskaltegira**, zure herriko...**HERRIRA** joateko prest gaude.

BADA ROMERIA




"HAU KOMERIA" ! ! ! ! !

Errepertorioa:

- "Ederra da bera"Paso dobles (ElConsortio)
"LolitaDori"Operako Aria (Mozart)
"Easoko Ederrak"Zarzuela (Chueca)
"Ez gara panpin politak"....Txotisa (Chueca)
"Teatreruak" Txotisa (Chueca)
"Ezetz ! "..... Musika arina (autore ezberdinak)
"Maitasuna zara zu"....Saltsa (Arsenio Rodriguez)
"Maiz eta goxo-goxo".... Jazz (kuincy Jones)
"Altxa zaitetz, dantzatu". Saltsa (Al castellanos)
"Hau duk komeria"..... Euskal musika herrikoia

Laburpena:

Gaurko kantu saio eder bat dago antolatuta herrian. Jende ugari hurbildu da bertara. Patxi elektrikaria azken ukituak ematen ari da argiei. Horretan dagoela aretoko nagusiak telefonoz hots egiten dio. Ezin izango da saiora etorri, ohean dago. Don Alfredok denaz arduratzeko esaten dio. Patxik ordea haserre hartuko du agindua, gaur urteak betetzen ditu eta lagun arteko afaria dauka elkartean. Hala eta guztiz ez du aukerarik galduko, eta beste ezer baina lehen elkarterako dirua ateratzeko antolatu duten zozketaren boletotxoak saltzen saiatzen da. Azkenik heldu dira LOLITADORI, eta ahal izan den bezala baina, hasi da kantu saioa. Badirudi dena primeran doala, ikusleen artean ordea Doriren senar gai ohia dago, Emilio. Emiliok gauza asko ditu konpontzeko...Patxi elektrikariak nahikoa du argi eta boletoeekin...neskak asko dute kantatzeko eta erakusteko....Hasi da nahaspila eta komeria!!!!



LEYENDA	
P.C	
PAR	
RECORTE	
FLUORESCENTE	

DISEÑO DE ILUMINACION
JAVI MOLINA

POTENCIA - 22.000 W

MEDIDAS - 6 X 8

ESCALA 1. 50